

Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki!

Martxoaren 22ko unibertsitateetik kanpoko hezkuntza greba

2017ko martxoaren 22rako unibertsitateetik kanpoko hezkuntza publikoan LAB, ELA eta steilas sindikatuek deitutako grebaren harira, UPV/EHUko LABek zera azaldu nahi du: 

- Euskal Herriak **hezkuntza-sistema propio** bat behar duela, kanpoko baldintzetatik eta merkatuek eta neoliberalismoak sortzen dituzten injustizietatik libre.
- **Unibertsitate publikoa hezkuntza-sistema horren ezinbesteko osagaia** dela euskal herritarrek formatzeko eta gure herriaren garapenerako.
- **Azken urteetan egon diren murrizketek UPV/EHUren izaera publikoa kaltetu dutela salatu nahi dugu**, bai irakaskuntza eta baita ikerketa alorretan.

Greba deialdi honek hiru ardatz nagusi ditu: murrizketen salaketa, negoziazio kolektiboaren defentsa eta hezkuntza sistema propioaren errebindikazioa.

Une honetan, gehiengo sindikalaren greba deialdia unibertsitate ez besteko gainontzeko sektore publikoetara mugatu bada ere, LABek aurreko ardatz horiek UPV/EHUrak ekarri honako aldarrikapen hauek egin nahi ditu:

MURRIZKETARIK EZ

1. 2010etik aurrera Eusko Jaurlaritzatik Unibertsitateari ezarri zaizkion **aurrekontu-murrizketak geldiarazi** eta honek behar dituen diru-ekarpenak bideratzea.
2. **Matrikula-tasak gutxitu** eta **bekentzako diru kopurua handitzea**.
3. **Langileok galdutako eros-ahalmena berreskuratzeko soldata igoerak**, atzerapenen ordainketak eta soldataren zein osagarrien sistemak arrazionalizatzea **guztiok soldata duina izateko**.
4. **Birjartze-tasaren desagerpena**.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA INDARTU

1. Unibertsitatean ematen den **prekarietateari aurre egiteko neurriak hartzea** eta, zentzu horretan, **Unibertsitate Plana, bere osotasunean, betetzea**.
2. **Ibilbide profesionalak garatzea**: irakasleen irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa-lana orekatu, ikertzaileen irudiak garatu, AZPkoen barne-promozioak eta lekualdaketak martxan jarri eta aldi berean langileen prestakuntzari garrantzia ematea.
3. Enplegua, familia eta bizitza pertsonala bateragarriak egiteko **kontziliazio neurri egokiak** indarrean jartzea.
4. **Plantilla gaztetzeko eta aldez aurretiko erretiroa bultzatzeko neurriak** hartzea.
5. **Akreditazio sistemetan eta merituen errekonozimendu prozeduretan zentzuzko baldintzak** ezartzea, gure herriaren hezkuntza eta ikerketa beharrei lotuta.
6. Langileon segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatzeko **lanpostuen ebaluazioari ekin**, eraikinen segurtasuna bermatzeko inbertsio-plana osatu eta patronalaren **mutuekin dauden kontratuak bertan behera uztea**.

HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA ORAIN

1. **Euskaraz ikasteko, ikertzeko eta bizitzeko neurri eraginkorrak** sustatu eta Euskal Herriko gainerako unibertsitateekin elkarlanean aritzea.

2. Jakintza, ezaguera eta kultura landu, sustatu eta hedatzeko instituzio nagusienetakoa den **UPV/EHUren izaera publikoaren defentsa.**
3. **Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko** eta diskriminazio oro desagerrarazteko neurriak hartzea.
4. **Irakasle laboral/funtzionarioen arteko ratioaren desagerpena.**
5. **Euskal Irakasle eta Ikerlarien estatutua garatzea.**
6. **3+2 proposamena erabat baztertzea**, master eta gradu-ondokoen iraupena luzatzeak matrikulen gorakada ekarriko badu.
7. **Gobernantza demokratikoa: klaustro, gobernu kontseilu zein ikastegietako organoetan parte hartze demokratikoa** bermatu eta gobernantza **eredu teknokratiko eta autoritarioak baztertze**ko araudiak ezabatzea.

LAB aurreko aldarrikapenen inguruko lanean arituko da UPV/EHUn. Eta, ildo horretan, UPV/EHUn langileok murrizketen aurka eta negoziazio kolektiboaren eta hezkuntza sistema propioaren aldeko aldarrikapenak lortze aldera **mobilizazio mota ezberdinak bultzatuko ditu.**